

JON MIRANDE AIPHASORHO
(1925-1972)

HITZAURRE
(Jon Mirandez dakidana)

Gure euskal olerkaria Parisen sortu zen 1925.urtean, guraso zuberotarren seme eta hurbil bizitza guztia jaioterri horretan eman zuen. Bazekizkin hamar bat hizkuntza eta haien artean, alemanera eta irlandera zaharrak, baita latina eta grekera irakurtzen. Hitz egiteko ongi zekizkin besteak. Aleman, espainol, italiar eta frantses literaturak ezagutu arren ederrestenenik zuen ingelerazko olerkigintza. Obra gehiena, amorratuki, euskaraz eman zuen ez zizkigun, kanpotarrei gutunak eta hamar bat artikulua frantsesez, bretoieraz, gaelikeraz bai-zik, utzi.

Joan den mendeko berrogeita hamar urteetan, Euskal Herrian, faxista zela aldarrikatzeak idazle baztertu bilakatu zuen, bestalde, nahiz bera espiritualista izan, kristautasunaren eta Elizaren aurka idazteak ez zion lagundu; elizaren eta dotrina puritanoaren itzalean bizi zen herrian bere ideia heterodoxo berritzaileek, eskandalu egin zuten Ez zuelako euskaldunen artean inor bere nazi ideien alde zegoenik ediren, politika apur bat utzirik literaturari eman

zen baina hor ere arrakasta gehiegi gabe: berak 1953. urtean aurkeztu olerki bilduma ez zen, bera hil ondoren baizik, 1976. urtean argitaratu.

Nire ustez euskal literatura modernismoan sartzeko lehen urratsa Jon Mirandek zuen eman; gure hizkuntza gehiegi irauli gabe euskal literaturan isilduak edo ia debekatuak ziren gaiak erabili zituen. Bai, bere gaien ausarke-riak luzerako euskal literatura jasoari sakristia usaina kendu zion.

Ipar Euskal Herria Hegoaldea bezain ipur txuri izanki, horrek apez bazuen eta laiko fededunen etsaigoa piztu zion eta frantses euskaldunek beren orduko "Euskalsainduan" sartzeari oztopo egin. Euskal kultura gobernatzen zuten folklorista eta kostunbrista agintariak jorratuz eta oka eginaz idatzi zituenengatik, garaiko giro grisean, berunezko urteetan apur bat baztertua egon zen; gaur irakurtzen denean, gazteen artean duen arrakasta jarraikia obraren aurpegi kritikoari zor diola ulertzen dugu eta halaxe sortu da Jon Mirande Fan Cluba.

Jon Miranderen ausartziak 1980 urtetik landa gazte franko zirikatu zuen, eta denbora berean, Europa osoan bezala, barnetik gizarte kontserbatzaile horrek sekulako zafraldia hartzen zuelarik desafio eta eskandalu handiagoz, *Napartheid*, *Ostiela*, *Pott* aldizkariak eta besteek Euskal Herria inarrosi zuten

Eliza gizon zenbaitek bere 1953. urteko olerki bilduma argitara ez zedin Jon Miranderen aurka kabala bat eratu zuten, berak Pariseko Euzko Deya aldizkarian aitortu zuelako bere liburuan olerki erotikoak izanen zirela; berehalaxe Lafitte Abade "liberalak" *Liburu lizunetaz* artikulua idatzi zuen, pornografia eta erotismoa boltsa berean sartuz. Mirandek *Euzko Deyan* erantzun zion sineste eta adierazpen askatasuna eskatuz, eta orduan Chabagnok, Torquemada frustratu txikiak, idatzi zuen frantsesez (euskaltzale handia baitzen Afrikan zebilena beltzak argitzen eta frantsesten) Onaindia kanonikoari mehatxu gutun hau igorri, euskaratzen dudana

1953 urtarilaren 9.an

Nire buruari barkatzen diot (frantsesez je m'excuse,sic) ausartzia Euzko Deyan II eta I2. orrialdetan, 355. zenbakian, argitaratu den artikuluari kasu eman dezaiozun, erran nahi dut Jean (sic) Mirandek liburu erotikoez idatziari.

Aldizkari horren adelatzean ez duzula inolako erantzuzkinzunik, baina horretaz arduratzen diren ingurunekoen artean (sic) eragin handia duzula, badakit.

Horregatik zure ardurari dei dagiot ezen ez zegoela inolako legez argitaratzeko beharrik iduri zaidalako. Autore horren lumapean ez nau ezerk harritzen baina min hartu dut Euzko Deyan argitaratua ikusiaz.

Erraten digu gaurko euskaltzaleen artean panteistak, pagan berriak eta ateuak badirela eta bera horien artean konda. Lehia du bere pentsaera garbi eta zikinak (sic) euskarazko bertsotan emateko.

Ez zara harritu behar baldin gure euskaldun herritarrei zuzendua den aldizkari batean horrelako orrialdea eman bazaiola deitoratzen badut.

Euzko Deyako zuzendarien artean daukazu eraginak horrelako artikulua beste behin bazter detzan? Hori egin gabe, Euzko Deya, Mr Mirandek irakurri, Indexean sartzea(sic) komeni litzateke.

(Jean Chabagno, Missions étrangères)

Chabagno misiolariaren alter egoa Bizkaian agertu zen. Mocorroa abade bat, Bilboko apezpikuarengana joan zen, Espainian Miranderen idazlanak debekatuak izan zitezen. Apezpikuak, sotilki erantzun zion debekatzeak hobeki salaraziko zituela. Hogeigarren mendeko 60 urteetan *Enbatako* autonomista eta ezker katolikoek artikulua bat eta bertso laidogarriak argitaratua zituzten Mirande ta bion aurka. *Ira facit versum* ez da harritzekoa Mirande minbera eskandaluekin gogorrago jotzen hasi bazen.

Hogeitabat garren mende honetan dagoeneko zentsore frustratu zintzoek, beren aurpegi hipokritekin goratik mintzo dira; badirudi euskal munduan “itsuskeria” asko egin daitekela baina ez aipatu.

Haren lehen euskal olerkia 1947. urtean hogeita bi urteekin idatzia *Soneto* da, eta hor heriotzaren hautatzea eta itxaropena goستن ditu. Gaixo handia zen eta maniako-depresibo etsialdietan ez zuen bakarrik bere barneko daimonei aholku eskatzen, adiskide batzuei baizik, hala nola bretoi geografoa bere eskandaluetara ongi bultzatzen zuena eta euskaldunen eskergabetasuna irakasten.

Bestalde liluratzen zuen eta eragin handia izan, frantses armadako kapitana ohi batek, garaiko zeltillari bikainetarik, *Breizh Atao* alderdiko bretoi nazionalista izanak, alferrikako bere talde neonazietara eta mozkortzera erotzen zuenak.

Politikari, ezaxola bilakatu ondoren eta bestalde ezin idatziz poetari depresioa buruzagitu zitzaion. Bizitzaren azken urtean Etienne Abanna psikiatrari aitortu zion: “Nire bizitzeko azken arrazoia idaztea izan da eta orain ezin dut idatzi”. Azkenean ez abertzaletasunak, ez idazteak, ez Nietzsche edo Spengleren irakurketa, ez eta ere eskuin muturreko adiskideek ez zioten bere beheraldian lagundu, ez eta bere buruaz beste egiteko joerak gaindiarazi. Montherlant frantses idazleak bere burua hil zuelako miresten zuen eta bere azken urtean, idatzi zidan oporretatik sartzean ez zekiala nora joango zen. 1972. urteko Eguberri Astean, pozoiez bere buruaz beste egin zuen. Miranderekin, gora beherekin, hogeitazko adiskidantza eduki nuen, baina ez nintzen gai izan bizi zedin eta burua gal ez zezan.

Jon Mirande antzerki eta eleberri pertsonaia

Karlos del Olmo gipuzkoar idazleak, Mirandez, hogeigarren mende azkeneko urteetan idatzi antzerki hoberenatarik: *Jon gurea Parisen hatzana*, Toribio Alzaga saria merezitu zuen. Pertsonaia nagusia gure olerkaria da

Inolako kontzesiorik gabe, ulertu zuen zein izan zen Miranderen, poeta eri horren, bizitza giro goibela, haren ezin ulertuak, haren kontraesanak eta haren temak, denbora berean idazleak, orduko Euskal Herriaren itxura garbia ematen digu.

Urte batzuk lehenago Mirandez *Etsipenez* izeneko eleberria idatzi zuen unibertsitario batek, ez zuen gaia, anekdota batzuez kanpo, sakondu, eta espainol ikuspegi batez Parise eta Frantzia ikusi: ezjakintasun horren ezaugarri frantses deitura gehienak itxuragabetuak daude. Eleberri horrek ia Miranderen adiskide guztiak politikan haren ondoko balira bezala ematen ditu.

Idazle horrek ez zuen ulertu, eritasunaz kanpoko, ahuleriak bazituela, hala nola esnobismoak, Nietzscheren ideiek kutsaturik unibertsitate ikasketen aurka izan zen, meritokraziak behar duelako norbaiten balioa egin, ez ikasketen asto larri delakoek: horregatik eta bere erruz gure poetak lanbide hits batean, bulego batean, bizitza irabazi behar izan zuen; bestalde bi aukera izanik ezkontzeko, hautuak saihestea erabaki zuen ezkontzak idazle bati, intelektual bati, kalte egin diezaiokeelako.

Jon Miranderi, aberatsen kapitalismoa, sos gosea, eta aurrezki egitea nazkagarri zitzaizkion. Halaber, garaiko gadget eroste eta kontsumerismoa, telebista, garbigailu, eta automobil izateak barregarri zitzaizkion, baina kultura tresnatzat onartzen zuen zinea, lauhun bat aletako liburutegi bikaina zeukan eta disko bilduma polita, familiak baloratuko dituen.

Bere ekoizpena ezin izan zuen garatu bulego lan beheratzaile baten giroan ez eta euskaldun kultura ireki batean. Gutun idazle handia zen, eta Europako linguista eta euskalari askorekin eskutitzak trukatzeko zituen; zoritxarrez ukan zituen gutunak ez dira zaindu, baina guri euskaraz igorriak asko zaindu dira.

Jon Miranderen heterodoxia berezia bere "paristartasun" delakoari egotzi zieten Miranderen erroak Zuberoan daudela ahaztu egin zitzairen. Zuberoa txikiena izan arren edo horregatik hamaseigarren mendean hasi-eta idazle heterodoxoak izan ditu; lehenik protestante eruditak kritikoak agertu ziren Isaak Bela eta Beltran Zalgize hamaseigarren mendean, Jakez Belakoa eta Ezponda bi anaiak hamazazpigarren gizaldian, gero katoliko kritiko eta filosofo erreformista euskaraz Jusef Egiategi eduki genuen, hemeretzigarren mendean Agosti Chaho ezkerreko eta antiklerikala, hogeigarren mendean Jon Mirande eskuineko antikristoa eta oraingo zuberotar gazteen artean haziak irauten du.

Haren idazlanak

Itzultzailea

Olerkarien artean alemaneratik: Hugo Von Hofmannsthal, Friederich von Schiller, Franz Kafka eta Friederich Nietzsche itzuli zituen, ingeleratik: John Keats, gaeleratik: Marjory Kennedy, Seamus o'Neil, bretoieratik: Per Denez, Leon Jasson, Goulven Pennaod, gazteleratik: Federico García Lorca, nederlanderatik R. De Clercq eta beste franko. Prosaz Edgar Poe eta H.H. Munro Saki umoristaren ipuin bat, eta Nietzscheren *Also Sprach Zarathustra* liburuaren itzulpena abiatu.

Saiakerak

Saiakera nahiko luzea *Gizagaindikoa Nietzscherengan* idatzi zuen; irakurri nuen: ezin argitaratuz esan zidan aurtiki zuela, baina Andima Ibinagabeitiari bidali laburpena zaindu zen. Bestalde, parapsikologiaz beste saiakera bat eman zuen *Euzko Gogoa* aldizkarian zatika argitaratu zena.

Olerkigintza, olerki gaiak

Mirandek olerkietan darabiltzan gaiak ez dira osoki hitz lauuko antzekoak. Paristarra zelako, olerkaria euskarazko frantses idazlea egin nahi izan dute, baina aipamen bat edo bestez kanpo, sinbolisten eta Verlaine, Baudelairen eragina ez da batere argi, gainera berak artikulua bat idatzi zuen euskal erromantismo tragiko baten alde; halere, haren obra sailkatu gaitza da.

Heriotza

1947.ko bere lehen *Sonetoa* heriotza aukeratzeko eta horretarako itxaropenaren aldarrikatzea goraiatzeko du, *Nil Igitur mors est* Lukrezioaren esatera iruzkintzen, *Zakur hil bati* olerkia egiten, *Jauregi hotzean* eta besteetan Heriotza non nahi dago.

Mitologia

Euskal, zelten eta erromatarren mitologiaz idatzi zituen: *Harrizko jainko bati* (Sukellû Kantalon), euskaldunaz *Laminak*, *Akelarre*, *Undina*; haren antikristautasuna 1609. urtean erre ziren sorginen aldeko bertsoetan agertzen da, baita argiago Kristoren aurka idatzi *Obiko jainkoari* poeman.

Sexua

Sexualitatearen aipamena euskaraz hain debekatua zelarik, homosexualez, felazioaz, onanismoaz, pedofiliaz eta prostituzioaz idatzi zuen; baina gaur ere

“movida” saihesturik, geroago eta zintzoago diren euskaldun eta euskalduntzen kopurua gehitzen da, baita idazle haundi moraltzale batzuk, oraindikan, haserretzen dira eskandalua berpiztuz. Bai putekin eta andrekin ibiltzen zela eta pedofilo goxoa zela argi dago, baina pederasta, lesbiana eta bortxatzaile, ez: idazten ditugun guztiak ez ditugu bizitu. Aski ongi ezaguturik neska eta andrekin eduki zituen menturak eta besteak ezagutzen ditut.

Olerkiez kanpo kantu parodiko, kantu itzuliak eta beste batzuk berak ez zituen olerkitzat hartzen ez eta gogoko berak aukeratuekin nahastea. Gaika sailkatu ditut poemak, lau sailetan, Heriotzaz, Sexuaz, Mitoez eta Satiraz: *Thanatos, Eros, Mythos, Satyra* eta bi prosazko testu eman *Animae* atalean.

Halaz ere, poetika horren ulertzeko olerkariak *Euzkadi Irrati* klandestino-ko emankizun batean esanak 1953.ean eta gero idatziz Pariseko *Euzko-Deyan* emanak, Andima Ibinagabeitia jaunarekin izan zuen elkarrizketan, Mirandek berak esanak, hemen ematea egoki iruditu zait, haren *Ars Poeticus* bat delako, bere olerkigintza, eskola bati lotuegi gabe, europar literaturan sartu nahi baitu eta eredu bezala ingelerazko literatura ematen.

Alferretan ibili naiz kritikalariei erakusten, hain zuzen frantses olerkigintzak saihesten dituen, barne-errimak ipar Europako poeten gisa Mirandek erabiltzen dituela ez dakitelako zer den aliterazioa, baina barne errima horiek direla eta Mirandek zidan eredu bezala eman *The Rime of the Ancient Mariner*

We were the first that ever burst into the silent sea
(...) The furrow follow free

Mirande, paristar eta frantses idazle dela diotenek gaineratzen dute Verlaineri hartu dizkiola J. Mirandek asonantzia. Ez eta ez. Ahaztu egiten zaie jakintsun horiei eta Zuberoan hamabosgarren mendean hasirik olerkiak eta pastoralak asonantziak idatziak direla, ez dakite Mirandek bere idazle lehen urratsetan, euskal kantu bilduma bat idatzi zuela, ilobek zaindu dutena.

Orain, olerkietan sartu baino lehen Mirandek bere argitalpenerako idatzi *Hitzaurre* antzo bi hizkuntzetan emango dizuet, berak bere metrikari, bertso-gintzari, eta erritmoari buruz idatziak. Azkenik emango dut, beti bi hizkuntzetan, euskaltasun erromantiko baten alde, Baroja eredutzat harturik, idatzi zuena.

Ez nuelarik poeta bere daimonetarik zaindu ez urrundu, bere olerkiez hark eman kopia batzuk neuzkalako bigarren aurkezpenerako zaindu nituenenak ematearekin atsegin handia eman nion. Jon Miranderen olerkiez sei argitalpen ezagutzen ditut hiru onak, beste bi dena nahasian emanik eta ez osoa, itzulpen aitzakian gaztelaniaz berridatzia azkena, gero zatika italieraz edo eslobenierazkoei buruz, ezin erran deusik.

Miranderen testu zaharrak hizkuntza borroka baten oroitzapenak dira, poema gehienak lehenik gipuzkera osotuan idatzi zituen, baita lehen (*H*)*aur*

Besoetakoa eleberria euskara horretan, olerkien bigarren entseguan lapurtar klasikoaren eragina da, euskara batutik haren hizkuntza hurbiltzen dutenak.

Bi olerki eta ipuin baten itzulpena eman zituen zubereraz, eta bat ijitoen euskal hizkeran. Halere, grafia estandara gora behera, ez dut hiztegian ezer aldatu ustez eta halere, euskal literaturan lehen bisita egingo dutenek erraz ulertuko dutela. Bestalde, erdaldunentzat egin dut liburu hau, baina pasatzean euskaldunek ere balia dezaten, bi hizkuntzetan da.

N.B. Euskaldun diglosikoei esan behar diet frantses grafian amaren izena Ayphasorho dela, beraz ez da grekerazko izena eta «ph» ez da «f» baina zubererazko «p» aspiratua eta «ay» ez da «e» ingeleraz bezala, ahozkatu behar, beraz gutienik Aïpasorho erran.

Halaber, sortze agirian Jean agertzen da berak Jon izenarekin eman zituen euskarazko lanak; inori ez litzaioke burutik iraganen Guillaume Appolinaire frantsesezko poetaren obrak, Wilhelm Von Kostrosowsky izenarekin argitaratzea, ez eta *Le Bourgeois Gentilhomme* Poquelin baten izenean.